

**INGURUGIROAREN
ARLOKO POLITIKARI
BURUZKO TXOSTENA**

INGURUGIROAREN ARLOKO POLITIKARI BURUZKO TXOSTENA

SARRERA	1
PLANTEAMENDU OROKORRA	2
<i>INGURUGIROAREN EGOERA EUZKADIN LURRALDEA ETA BALDINTZATZAILEAK</i>	3
v Baliabide naturalen ustiapenaz	5
v Atmosferaren kutsadura.....	5
v Lurzoruaren kutsadura.....	5
v Uraren kutsadura	6
v Hondakinen kudeaketa	6
v Paisaiaren narriadura	6
v Hiri ingurunea.....	6
EAJ-PNV ETA BERAREN ALTERNATIBA INGURUGIROAREN ARLOAN	7
v Euzko Alderdi Jeltzalea gizarte-kultura berri baten alde.....	8
v Natur ingurunearen zainketa eta hobekuntza.....	9
v Zentzuzko garapen-eredurantz	10
v Enpresen jarduera eta ingurugiroa.....	11
v Erakundeen papera	12
INGURUGIROARI BURUZKO EAJren POLITIKA GAUZATZEKO EGIN BEHAR DIREN JARDUKETAK	14

SARRERA

Ingurune naturala etengabe aldatuz eta birsortuz doa; gure planetan bizia egotearen ezinbesteko ondorioa dugu hori. Izaki bizidun guzti-guztiek, salbuespenik gabe, aldarazten dute ingurunea. Gizakiak, bere historia osoan zehar, beste edozein espezieren antzera, aldaketak eragin ditu ekosistemen funtzionamenduan. Ez dugu uste izan behar aldaketa horiek berez txarrak direnik; beti aldatzen ari den ekosistema handi batean bizi gara eta ezin ditugu ahaztu geuk ekarri ditugun aldaketak. Gure izate hutsak ekarri ditu. Eta ez daukagu bizitzerik ingurunean aldaketarik eragin gabe, izan ere, horrela izango balitz gure espeziea dagoeneko galdurik egongo litzateke.

Ez dugu uste izan behar ere ingurunean edozein aldaketa lasai-lasai eragiteko moduan gaudenik. Gaur egun badugu ahalmen teknologikoa ingurua aldarazteko gure espeziearen biziraupena arriskuan jarri gabe. Kezkagarria ez da aldaketak eragiteko ahalmena izatea, aldaketak eragiten jardutea baino.

Horregatik, beharbada, azken hamarkadak garrantzitsuak izan dira ingurugiroaren defentsa eta zaintzari dagozkion gaietarako. Ingurugiroaren arazoa politikaren txokorik ilunenean egotetik apurka-apurka edozein planteamendu politikoren ezinbesteko osagai izatera igaro da.

Esan liteke gizartea oraintxe hasi dela aldatzen ingurugiroaren arazoari buruzko jokabidea. Euzkadin ere ingurugiroarekiko ardura gero eta biziagoa sumatzen dugu, nahiz eta oraindik ere ingurugiroa, sarritan, muturreko talde politikoen tresna izan. Gizarteak ere ez du erakutsi arlo horretan benetako heldutasunera iritsi denik; onenean ere, ingurugiroaren narriaduraz jabetzen gara pixkanaka, baina ez dugu kaltearen iturburutara jotzen, ezta beroriek ezabatzeko neurri egokirik hartzen ere.

Bide horretan ia dena dago egiteko.

Batzuetan, manipulazio politikoa dela bide, sinesmen erradikal berri baten arriskuarekin topo egiten dugu: ingurugiroaren aldeko garbizalekeriaren arriskuarekin. Bestalde, ingurugiroari buruzko konferentzia eta kongresu ugari antolatzen dira, askotan ez dutela benetako edukinik, ez konpromezurik, ezta jarduteko egitarau zehatzik ere. Horrelako ekintzak, aipatu berri ditugun ingurugiroaren aldeko muturreko jarrerak ernetzeko lur egokia izateaz gainera, alferrik ari dira luzatzen gizartearen adostasun zabala lortzeko bidea. Gizarteak kulturaren funtsezko osagaitzat hartu behar du ingurugiroa eta bera babesteari buru-belarri ekin behar dio, eta horrelako ekintzen bidez azken batean konpromezua geroratu baino ez dugu lortzen.

Etorkizuneko estrategia eratu beharra daukagu, beraz, alderdi politiko garen aldetik, ingurugiro arloko gaiei buruz zein jarrera hartuko dugun hausnartu, Eusko Alderdi Jeltzaleak ingurugiroaren arzoak non kokatuko dituen zehaztu, eta arretaz aztertu behar dugu zein ikuspuntutatik heldu horrelako gaiei.

Ingurugiroaren egoera gorriaz jabetzean gizarteak egin duen aurrerapausuari esker, ohartu egin gara ingurune naturala hondatzen duten eragileek ez dutela banaka jokatzeko; alderantziz, bat eginda daude, multzoan dihardute, eta multzo hori, egituraren aldetik, estu loturik dago bai gaurko kulturak naturarekin dituen harremanen izaerari, bai gure gizarteetan ekonomiak duen garabide zehatzari, eta bai gizarte modernoetan hedaturik dugun ongizate-kontzeptuari ere.

Ingurugiroaren aldeko politika egoki baten abiagunea ez da gizarte ongizatea bera ukatzea, gure artean gizarte ongizatea ulertzeko modua aldatu beharraz konturatzea baizik.

Euzkadi herri txikia izanik, ekologiaren lelo horrek, "*Osotasuna gogoan izan eta tokian tokikoari ekin*", bertan esanahi berezia du. Lelo horri jarraituz gero, nahitaez bilatu beharko dugu ongizatearen definizioaren bat, munduko biztanle guztientzat edo gehienentzat behinik behin balio izango duena. Hau da, gure eginbeharrari heltzen diogunean, kontutan hartu beharko dugu, beste aldagai batzuen artean, munduko biztanleriaren ongizatea.

Beste alde batetik, gure neurrien arabera jokatzeko jakin behar dugu, hemengo errealitatea zehatz-mehatz aztertutik daukagula, bertatik, baina beti ere gogoan dugula hemengo ekintzek urruneko lekuetan ere ekarriko dituztela ondorioak.

PLANTEAMENDU OROKORRA

Geografi eremu jakin batean ingurugiroari buruzko edozein azterlan egiterakoan oso kontutan eduki behar dira lurralde horren eta bertako biztanleen ezaugarriak. Hala ere, ingurugiro arloko azterketak ez dira lurralde bakar batean gelditu behar; geografi eremu zabalagoetarako erabiltzen diren abiaburu eta gomendioetara jo behar da horien arabera jarduteko.

Gure artean, bada, beste ezertan hasi aurretik Euzkadiko lurraldearen berezko ezaugarriei, bertoko arazo zehatzei begiratu behar diegu, baina ahaztu gabe gure lurraldeko ingurugiroaren arazo guztiek badutela hedadura zabalagoa, eta horregatik bat egin behar dugula lurralde handiagoetan ingurugiroaren alde dihardutenekin. Hor ditugu, esaterako, Europako Batasuna, Estokolmoko 1972ko Konferentzia eta Rio de Janeiron 1992an egindakoa. Horrelakoetan urratzen ari diren bideetatik, ingurugiroaren aldeko ekintza bateratua lortuko dugu. Planeta bat baino ez dugu bizitzeko, eta ingurugiroa babesteko ahalegin guztiak planeta osora zabaldu behar dira.

Edonola ere, gizakiaren eta naturaren arteko harremanetan alde nahiko handia egoten da leku batetik bestera. Munduko biztanleen laurdenak, herri aberatsenetako biztanleriak, munduko energiaren lau bostenak kontsumitzen ditu; merkataritzako energian, kontsumo handiko herrietako biztanle batek kontsumo txikiko herrietako batek baino 18 bider gehiago kontsumitzen du; Estatu Batuetan biztanleko isurtzen den karbono dioxidoa Asiako herrialdeetan halako hamar da.

Hori horrela izanik, ez dira nahiko Euzkadin eta Euzkadirentzat asmatzen diren irtenbideak; beharrezkoa da nazioarteko aliantza eta eztabaidaguneetan parte hartzea, baita hirugarren munduarentzako laguntza irautarazi eta gehitzea ere.

Baieztape horrek ez gaitu eraman behar agerikoa dena ukatzera: Euzkadik baditu ingurugiroaren arloko arazo batzuk bertan baino ezin direnak konpondu, eta aldi berean, zalantzarik gabe, gure herrian arazo orokorrak konpontzen laguntzeko prest egin behar dugu lan, ingurugiroak elkartasunezko ekintzak behar dituelako, eta ezin dugulako inoiz ahaztu guztien onura Euzkadiren onura ere badela.

Ingurugiroaren arazoek, azken batean, gizartearen portaera-eredu nagusietan dituzte sustraiak. Nekez lortuko dugu arazo horien konponbidean urrats sendorik egitea baldin eta aurretiaz norbanakoen eta gizartearen jarrera eta ohiturak aldaraztea lortzen ez badugu.

Ikuspegi horretatik, ingurugiroari buruzko edozein politikatan lehentasuna izan behar dute kontsumo-ohiturei loturiko arazoez eta berauen irtenbideek.

Izan ere, naturari eta oro har ingurugiroari egiten zaizkien erasoak, gizakiarentzat gero eta gogorragoa den gizartea bezalaxe, jarrera jakin baten ondorio dira: kontsumoaren kultura dugu jaun eta jabe, eta horrela teknika helburutzat hartu dugu, gizaki guztien beharrezan menpean jarri beharrean.

Gizakia beti dabil ekoizten, kontsumitzen eta premia berriak asmatzen, eta sarri askotan natura hondatzen ere bai; berak sortu duen ingurune hurbil eta gozoan murgildurik, ez dio ardura ingurune naturalaren egoerak.

Kutsagarri diren ekoizpen-prozesu eta ekoizkintariko askok azken ekoizkinen itxura edertzeko edo kalitatea apur bat igotzeko baino ez dutela balio ikusteak benetan kezagarria da.

Jendeak, askotan, dena menperatu beharrak itsututa, bere onura berehala eta mugarik gabe lortzea baino ez du bilatzen, albo batera utzita guztien onura eta etorkizuna, noizbait bere itsukeriaren biktima izan daitekeela ohartu gabe.

Edonora iritsi nahiak zirikatuta, apaingarria, azalekoa eta galkorra dena maite duen eta hondakinak kopuru izugarritan sortzen dituen kontsumo-gizartearen beste pieza bat bihurtuta, jendea gero eta nagiago dago, konpromezuak bere gain hartu eta gizartean parte hartzeko gero eta gogo gutxiagoz.

Zalantzarik gabe, ingurugiroan gaur egun ditugun arazoak daude kultura, politika eta gizarte-ekonomiari buruzko eztabaida guztien erdigunean. Horregatik, Euzkadiko indar politiko guztien egitarauetan ageri da gure lurraldeko ingurugiroaren arloko arazoei buruzko gogoeta eta ekimenen aipamenen bat. Alabaina, Euzko Alderdi Jeltzalea gainerako alderdi politikoetatik eta are nabarmenago talde politiko ez-abertzaleetatik bereizi behar da honako honetan: beti kontutan izan behar dugu gure ingurunea ez dela bakarrik osagai biotiko eta abiotikoen multzo konplexua, horrez gainera, eta bereziki, kultur elementu jakin baten beren beregiko agerbidea eta transmisibidea; kultur elementu horiei esker Euzkadi noizbait berezitasun eta ezaugarri berezkoen jabe den geografi gune bihurtuko da, berezko kultur eta natur ondarea duen lurraldea izango da.

Ingurugiroa hondatzea edo baliabideak txarto erabilia etorkizunerako aukerak alferrik galtzea, jokaera hori ez da "naturarekiko begirunerik eza" besterik gabe, bada zerbait zehatzagoa ere: arbasoek utzi diguten eta guk ondorengoei ahalik eta osoen utzi behar diegun kultur ondarearen zati bat desitxuratu, are gehiago, erabat suntsitu lezakeen zerbait.

INGURUGIROAREN EGOERA EUZKADIN LURRALDEA ETA BALDINTZATZAILEAK

Euzkadiko ingurugiroari buruzko edozein azterlanetan, jakina, lehendabizi gure lurralde osoa ekosistema handi baten antzera hartu behar dugu; ekosistema hori jendearen jardueraren menpean eta eraginpean dago. Izan ere, bidezkoa da aztergaiaren sinplifikazio hori egitea, eta Euzkadiko natur inguruneari edozein erasok gogor eragiten diola esatea ere bai, alderdi garrantzitsu hauek aintzat hartuz gero:

- { Gure lurraldea oso txikia da.
- { Hirietan eta industrialdeetan biztanle asko metatzen dira.
- { Mendialdeetariko batzuk biztanle gabe gelditu dira.
- { Industriegune handiak ditugu.
- { Industriak teknologia zaharkitua eta kutsatzailea erabiltzen du nagusiki.

Gure habitatean egin daitekeen banaketa biogeografikorik orokorrean, honako azpisistemak ditugu:

- v Azpisistema atlantiarra.
- v Trantsizioko azpisistema mediterraniarra.
- v Azpisistema piriniarra.
- v Azpisistema mediterraniarra.

Sailkapen orokor horrek lau eskualdeen ezaugarriak bereizten ditu eta bide batez, ingurugiroari dagokionez Euzkadiren berezitasuna adierazten digu. Lana erraztearren, lehen esan dugunez, ingurugiro-sistema bakarra balitz bezala aztertuko dugu, baina kontutan edukiko ditugu sailkapen horretan ageri diren berezitasunak, noski.

Euzkadiko natur inguruneak ekosistemen aldakortasun eta aniztasuna du ezaugarri. Baditugu landaguneak, oro har ondo artatuak, baso zabalak eta balio ekologiko izugarriko gune batzuk.

Topografia edo, zentzu zabalagoan hartuta, ingurune fisikoa da gure lurraldea haran eta mendilerrotan antolatzen duen faktorea. Dударik gabe, ezaugarri horietan izan dira nagusiki Euzkadiko biztanleriaren banaketa eta gaurko gizarte eta ekonomi jarduerak baldintzatu dituztenak.

Ibaiak laburrak dira, malda handikoak, oro har emari ugaria baina gorabeheratsua dutenak. Urak hartzen duen abiadurak higadura handia eragiten du, ibilgua sakondu eta haran nahiko estuak eta aldapatsuak eratzen ditu. Ezaugarri hori ez da nabaria trantsizioko azpisistema mediterraniarrean, ezta mediterraniar hutsean ere; horietan lautada da nagusi.

Ez dugu ahaztu behar lurralde bateko ingurugiroari buruzko edozein azterlanetan "paisaia" dela lurralde horren ingurune fisiko eta biotikoaren ezaugarri guztiak bere baitan biltzen dituen kontzeptua. Paisaiak, hitzak berak dioenez, prozesu historikoen agergerri edo erakusgarria da; gure helburuei dagokionez, gure kultur eta natur ondarearen erakusgarria.

Esan beharrik ere ez dago ezaugarri fisiko horiek baldintzatzailerik garrantzitsuak direla Euzkadiko ekonomi arloen gaur egungo egoeran.

Euzkadin, Europako beste lurralde batzuetan bezala, industriaren garapena, hazkunde demografiko arina, biztanleak hiriguneetan metatzea, lurzoruaren erabileren aldaketa eta, oro har, jendeak habitat naturalari egiten dion presioa, ingurugiroaren arloko hainbat arazo konplexuren iturburu izan dira. Arazo horien alderdi batzuk azpimarratu behar ditugu batez ere, Euzkadin gaurkotasun, eragin eta garrantzi berezikoak direlako:

Natur baliabideen ustiapenez.-

Lurzorua:

Nekazaritza eta basogintza arloetan izan diren jokabide desegoki batzuen ondorioz, lurzoru emankor ugari galdu da. Denbora gutxian suntsitu den lurzoru berritu eratu dadin askoz denbora gehiago behar da; horrela, galtzen den lurzoru tona bakoitzarekin eraso gogorra egiten zaio natur inguruneari.

Ura:

Beharbada, hauxe da erabilera okerreza izan duen baliabidea. Ez da inoiz egon urarekiko begirunearen kulturarik, ibai eta errekek beti hartu dira zabortegizat; bestalde, baliabide ia agortezina delakoan, ez zaio duen balioa aitortu.

Gaur egun, urarekiko jarrera hori aldatzen hasita gaude, ondasun urria dela jabetuta.

Gure lurraldearen klima eta kokaeragatik, Euzkadin ur gabezia ez da arazo larritzat hartzen, bai ostera uraren eta ur-baliabideak kudeatzeko egituren erabilera zentzugabea.

Itsasoko baliabideak:

Gure portuetako arrantzaleek harrapaketatik izan duten beherakadak erakusten digunez, oker larria da itsasoa baliabideen iturri agortezina dela uste izatea. Horren lekuko, zenbait espezie ia erabat galdurik daude eta arrantzaguneak erdi agorturik, arrainen arteko bereizketarik egiten ez duten arrantza-teknika berrien mehatxupean, gainera.

Atmosferaren kutsadura.-

Gure Herriko leku askotan ditugun industri jarduera kutsagarrien eraginez, eta bestetik zenbait ekoizkin, batez ere petrolioaren eratorriak, neurri gabe erabiltzearen ondorioz, Euzkadiko hainbat tokitan atmosfera oso kutsatua dugu.

Gaur egun, lantegietatik datorren kutsadura gutxituz doan bitartean, ibilgailuek eta berokuntza instalazioek sortutakoak gorantz egiten du modu nabarian.

Lurzoruaren kutsadura.-

Han eta hemen gai toxikoak pilatu izanak kutsadura larria eragin du gure lurraldeko gune jakin batzuetan. Lur horiek ezin izango dira ohi bezala erabili neurri egokiak hartu arte, kutsagaiak lurzorutik akuifero, soroetako landare eta larreetara igarotzen direlako. Gainera, kutsadura-mota horrek lurzoru gabeziaren arazoa areagotu egin digu.

Uraren kutsadura.-

Gure ibaiak mendetan zehar erabili dira isurtegi modura eta bide horretatik etorri da azken garaietako kutsadura. Presio arina jasaten zutenean, berez garbitzeko gaitasunari esker egoera onean irauten zuten. Isurketak, batez ere lantegietakoak, ugaritu direnean, narriadura hainbestearino heldu da ezen zaila izango baita gure ibaietariko asko lehengo egoerara ekartzea.

Beste arazo larri bat nekazaritzan ongari gehiegi erabiltzetik eta nekazaritza zein abeltzaintzako instalazioetako hondakinen kudeaketa txarretik dator. Lurzoru eta ibaien kutsadura nahiz uraren eutrofizazioa ditugu horren ondorioak.

Hondakinen kudeaketa.-

Euzkadiko hiri eta lantegiek hondakinak kopuru handitan sortzen dituzte. Horixe da gure Herriaren arazo nagusietariko ingurugiroaren arloan. Urte asko eman dugu hondakinak kudeatu gabe edo txarto kudeatzen, nahiz arazoa behar bezala ezagutzen ez zelako, nahiz plangintza edo legeria zuzenik ez zegoelako. Gaur egun bi arazo handi ditugu: hondakindegien arazoa eta hondakin toxiko edota berezien kudeaketarena.

Hondakindegia arriskutsuak dira, denboraren buruan gainezka betetzen direlako eta beste ondorio batzuen artean osasunerako arriskuak eta akuiferoen kutsadura ekar ditzaketelako.

Hondakin toxiko edota bereziak kudeatzeko orduan oztopo larriak sortzen dira. Alde batetik, tratamendu plantak non jarri erabakitzerakoan, herri guztiak inguruetan kokatzearen aurka egoten dira; bestetik, teknika eta ekonomiaren aldetik ere hainbeste eragozpen azaltzen dira eta azkenean tratamendu bakarra hondakinak baldintza berezietan biltegitratzea izaten da.

Paisaiaren narriadura.-

Giza-jarduera guztiek eraldatzen dute paisaia; industriatik nekazaritzaraino, edozein motatako obrak bitartean direla, herrilanak nahiz pribatuak.

Gehienetan ez da neurri zuzentzaile egokirik hartzen eta gizakiaren jarduerak paisaiaren desitxuraketa eragiten du.

Hiri ingurunea.-

Hirigintza, gaur egun ulertzen den eran, ez da bakarrik hiriari dagokiona, hitzaren adiera etimologikoa horretara mugatzen bada ere. Mende honen erdialdetik aurrera, lurralde edo herri oso baten gaineko plangintza fisikoaren eta ekonomi plangintzaren arteko harreman guztiak biltzen dira hirigintzaren baitan. Horrez gain, jendeak bere jardueretan naturari egiten dizkion erasoan aurrean natura zaindu beharra aldarrikatzen dutenen kezka ere bere egiten ditu.

Hala ere, esan liteke ez garela garbi ohartu eta ez garela ohartzen hirigintzazko plangintzak zein garrantzi izugarria duen. Euzkadin, bistan denez, hiriak ganorarik gabe garatu dira. Horrek kostu handiak ekarri dizkio gizarteari bai ekonomian eta bai ingurugiroaren aldetik. Kutsadura arazo ugariak (zarata, atmosferaren kutsadura, etab.), oinarrizko gizarte ekipamenduen gabeziari gehitu zaizkio eta sarritan bizitza kalitate eskaseko hiriguneak sortu dira.

Beste zenbaitetan, hirigintzazko plangintzarik ezak edo plangintzaren desegokitasunak lurraldearen gune batzuetan "urbanizazio basatia" egiteko bide eman du eta natur inguruneak eraso larriak jasan ditu.

Aurrerantzean kalitate txarreneko lurrak aukeratu beharko lirateke urbanizazio, lantegi edo azpiegitura berriak kokatzeko; izan ere, nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzarako baliabideak nahiko gutxituak ditugu, are okerrago, debalutuak (narriatuak). Hain zuzen ere, azpimarratu beharra dago lurzorua hirigintza eta industri xedeetarako erabiltzeko ahalbidea gaur egun oso murrizturik dagoela.

EAJ-PNV ETA BERAREN ALTERNATIBA INGURUGIROAREN ARLOAN

Ingurugiroaren eremuan Euzko Alderdi Jeltzaleak sor dezakeen jarduketa egitarauak beti ere babes eta lehengoratzea izan behar ditu hasierako helburutzat, eta kontutan eduki behar ditu arlo honetan hainbat diziplina eta elkarrekin harremanak dituzten hainbat sektore biltzen direla (urak, mendiak, hirigintza, nekazaritza, herrilanak etab.).

Lurzorua, urak eta landaredia babestu, lehengoratu eta artatu nahi izanez gero berehala hartu behar dira erabakiak eta lanari ekin. Horretarako, ingurugiroaren arloko arduradun politikoez, herri administrazioko arduradun, zientzialari, erakunde ekologista eta erabiltzaile guztiak lehenbailehen abiatu behar dute elkarriketa eta adostasunaren bidean. Eztabaidarako oinarri objektibo eta bateratua bilatu behar da, eta halaber, lurraldearen antolaketaren eta baliabideen ustia ketaren ardura duten alde guztiak elkartu behar dira.

Ingurugiroaren babesaren kontzeptuak beti izan behar du abiapuntutzat natur baliabideen babes, eta bestetik, konpromezu-maila zehatz bi batu behar ditu. Lehenengoa orokorra da, eta bertan kokatu behar dira biziari eusten dioten elementuen eta natur baliabideen egoeraz diharduten xedapen arau-emaileak eta egitarau politikoak zein administraziozkoak. Bigarren maila zehatzagoa da, bertan gauzatuko baitira lehenengo mailan erabakitako neurriak, natur baliabideak zentzuz erabil daitezten arloz arlo beharrezko azterketak eginez eta zuzeneko ardura hartuz (plangintza, baimenak eta zehapenak dira babes-mekanismoetariko batzuk).

Ingurunearen babes hutsera mugatzen den babes-planteamendua ez da nahikoa, Euzkadiko errealitatea hartu behar baitugu abiapuntutzat: hainbat lekutan ingurugiroa narriaturik dago eta lehengo egoerara ekarri behar dugu. Besteak beste, behin-behineko eta salbuespenezko neurri osagarri batzuk hartu behar dira gure ingurunea lehengoratzeko, eta gainera, kalteak gainditzeko berezkoa duen gaitasuna bete-betean berreskuratzen lagundu behar zaio. Hori horrela izanik, Euzko Alderdi Jeltzaleak berak, gizartearen kezka eta ingurugiroaren arloko arazoak konpontzeko alternatibak bideratzen dituen bitartekoa denez, argi eta garbi agertarazi behar du horrelako teknikak erabiltzen hasi aurretik zehaztu

egin beharko dela, batetik, zeintzuk diren babestu beharreko elementu edo ondasunak, eta bestetik, zeintzuk diren babestu beharreko elementu horien berezko erregulazioa zaildu edo erabat eragozteko adinako indarra izan dezaketen eragileak. Hain zuzen ere, gauza bat da babes-eginkizuna babestu beharreko elementuen ikuspegitik ulertzea, beste bat helburu hori betetzeko tresna edo baliabide egokiak aurkitzea, eta beste bat, guztiz desberdina, babespekoari zerk eta zergatik egiten dion kalte jakitea.

Horregatik guztiagatik, Euzko Alderdi Jeltzalea, euskal gizarteko eragile nagusienetarikoa izateagatik duen betebeharrak jabeturik, ziur dago Euzkadiko ingurugiroaren arloko arazoek gaineko eztabaidan oinarri eta gogoetarako ardatz batzuk ezarri beharra dagoela, gizartean adostasun gero eta zabalagoa sortarazi ahal izateko.

Euzko Alderdi Jeltzalearen iritziz, deserdirapena, partehartzea eta koordinazioa, beste kontzeptu batzuen artean, funtsezko printzipiotzat hartu behar dira Euzkadiko ingurugiroaren arloko politika Administrazioetik antolatzeke orduan; izan ere, ingurugiroaren gaia zabalegia da Administrazioaren arlokako organigrametara mugatzeko.

Administrazioaren kudeaketa-ataleak dagokienez, Euzko Alderdi Jeltzaleak badaki arretaz jokatu beharra dagoela, Administrazioaren barruan hierarkizaziorik gerta ez dadin, are gutxiago interesen gainezarpen edo bikoiztasunik, atal bakoitzak jasotzen dituen eskumenen inguruan. Kudeaketak koordinatu edo bateratu ditzaten proposatu behar diren administrazio-erakundeek, beraz, beharkizun hauek bete behar dituzte: gizartearen adostasuna lortua izatea, eta herritar-talde guztiekin komunikatzeko bide egokiak edukitzea.

Euzko Alderdi Jeltzalea gizarte-kultura berriaren alde.-

Euzko Alderdi Jeltzaleak gizarte-kultura berri bat bultzatu nahi du. Kultura horrek gizarteko jardun orokorrean, ekonomian, ohituretan, kontsumoari buruzko jarreretan, ingurune fisikoarekiko harremanetan izan behar du eragina. Kontua da gizabanako guztiei premiazkoena eskura jartzea, giza-baloreak indarberritzea, teknika gizakiaren beharrezan araberak erabiltzea eta jendea eta natura harreman egokietan jartzea; ingurugiroaren babesa planteamenduaren erdigunean kokatzea, itzulbiderik ez dugula eta aurrerantzean gure ekonomiaren hazkundera alde aurretik Euzkadiko ingurunearen birmoldaketaren eremuan lortu beharko ditugun aurrerapenen baldintzapean egongo dela jabetzea.

Xede horiek betetzeko joango diren heinean, kulturaren funtsezko elementu eta gizarte osoaren konpromezu aktibo bihurtzen diren heinean egingo du aurrera Euzkadik, eta neurri berean utziko dio ingurugiroaren arazoak bertako talde erradikalen manipulazio gai izateari.

Gakoa ez da arazo horiek guztiak konpontzea, joerak eta betiko ohiturak erabat aldatzea baino. Premia handieneko arazoei heldu behar zaie, politika eta ekonomia arloetako kudeaketarako tresna berriak sortuz eta oreka ekologiko handiagoa bilatuz. Zuhurtasuna izango da politika horietarako abiaburu nagusia.

Gure ekoizpen-sistematik kendu behar ditugu alferrik dauden prozesuak, baita gaien edo energien zentzugabeko erabilera eragiten dutenak ere.

Prozesu horiek, osterak, merkatuak eskatzen dituelako daude indarrean gaur egun, eta betiko iraungo dute indarrean, gizarteak berak ez badu eragiten euren aldaketa.

Kontsumitzeko ohiturak ere aldarazi egin behar dira, ekoizpide sinpleagoak behar dituzten eta emaitza berdina lortzeko kutsadura gutxiago sortarazten duten ekoizkinak kontsumitu behar baitira. Guztiok ekin behar diogu aldaketa horri, bakoitzak bere kontsumo-ingurunean, etxetik hasi eta enpresaraino. Horretara, kutsadura gutxien sortarazten duten ekoizkinak gehiago salduko dira, errentagarriago bihurtu, eta kutsatzea garestiago gertatuko da.

Euzko Alderdi Jeltzalearen eginkizuna, argi eta garbi, gizarte-kultura berri hori bultzatzea izango da neurri handian.

Euzko Alderdi Jeltzalearen ikuspegitik, Euzkadin ingurugiroaren aldeko politika gauzatzeko hiru kontzeptu garrantzitsu garatu behar dira eta bete-betean aplikatu: hiritarren Informazioa, Hezkuntza eta Partehartzea; izan ere, hiritarrak berez eta inork derrigortu gabe onartu behar du ingurugiroaren oreka dela erronka eta helburuetariko bat, natura eta ekonomia behar bezala uztartzeko bidean.

Hiru kontzeptu horiek gogoan, Euzko Alderdi Jeltzaleak uste du Ingurugiroaren arloko Hezkuntzaren bidez lortu behar dela jendea ingurunera begira jarri eta ingurugiroaren arazoez arduratu dadin. Beharrezkoa da, baita ere, kontsumitzailearen heziketa hobea, ekoizkin batek eskaintzen dion atsegina eta ekoizkin horrek denboraren buruan izan ditzakeen ondorio kaltegarriak bereizten jakin dezan. Bereziki, hauxe azpimarratu beharra dago, ingurugiroaren arloko hezkuntza egitarauen ardatz nagusi modura: Euzkadiko ingurugiroa, gizakiaren ekintzaren eta ingurune naturalaren arteko erlazio konplexua ezezik, bada beste zerbait ere, gure kultur eta natur ondarerik aberatsena ingurugiroan daukagu eta.

Ez dugu alde batera utzi behar, halaber, bolondres-taldeek bete beharreko zeregin garrantzitsua; alde batetik, gizarte ingurugiroaren arazoez ohartarazten dute, eta bestetik, herritarrek talde horietan dute ingurugiroari dagokien kontuetan parte hartzeko bide nagusietarikoak.

Natur ingurunearen zaintza eta hobekuntza.-

Ingurugiroaren arloko politikari dagokionez, ingurugiroaren arazoak Euzkadin garrantzi bereziko gaia dugu; izan ere, gure lurraldearen %80a hartzen du, gutxi gorabehera. Gainera, gure Herriaren historia, ekonomia, soziologia eta kulturak sustrai sakon-sakonak dituzte gure mendi, baso eta ibaietan. Hitz batean esateko, gure izadian.

Ildo horretan, Euzko Alderdi Jeltzalearen iritzian, Euzkadin ingurugiroari buruzko politika egokia egiteko ez da inoiz ere ahaztu behar zein erabakiorrak diren, ingurugiroaren orekari begira, bai Landa-garapenerako Politika eta bai Nekazaritza Politika.

Euzkadin landa eta mendialdean kokaturiko biztangune ugari ditugu. Nekazaritzako jardueretan oinarritutako ekonomia dute, enplegu eta errenta aldetik ez dute behar besteko aukerarik eta ezinbesteko ekipamendu eta zerbitzuen gabezia larria jasaten dute; hala ere, horien gizarte-kulturan datza gure herriak arbasoengandik jaso duen ondarearen zati handi bat eta, horregatik, berorien artapen, iraunarazpen eta garapenaz arduratu beharra dugu.

Biztangune horiek lurraldearen azalera osoaren %80 inguru hartzen dute. Hain zuzen ere, lurraldearen zati horretan daude gure lurraldeko ekosistema eta naturgunerik bikainenak, ondoen zaindu direnak.

Hori dela eta, landa-ingurune horri bizirik eustea funtsezko baldintza da, Euzko Alderdi Jeltzalearen ustez, Herrian ingurugiroaren oreka egokia lortzeko, lurraldea zentzuz erabili eta kudeatzeko eta, hain

zuzen ere, bere baitan duen natura babestu eta artatzeko. Izan ere, badira bertan praktika batzuk natur baliabideen erabilera egokitzen eta ingurugiroari kalte gehiegi egitea eragozten dutenak.

Landa-inguruneari bizirik eutsi beharra dela eta, Euzko Alderdi Jeltzaleak sendo jokatu behar du horrelako biztanguneen alde, Landa-Garapenerako Politikaren nahiz Nekazaritza Politikaren bitartez. Neurri horiek biztanlegabetzea eta ekonomi jardueraren gainbehera geldiarazi behar dituzte, arlo pribatutik xede horretarako egingo diren inbertsioak sustatuz.

Zentzuzko garapen-eredurantz.-

Gaur egun, mundu osoan onartzen da gizarteen ekonomiak bide "zentzuzkoago"etatik abiarazteko beharra. Munduko gizarteak mende honen erdialdetik hona erabili izan dituen garapen-ereduek eraginkortasun gutxi dutela erakutsi dute; are gehiago, eredu horiek sortarazi dituzten bizimoduei eusterik ez dago, ez eredu nagusiok garatu dituzten nazioarteko gizarte aberatsetan, ezta horien menpeko eta imitatzaile diren gizarte txiroetan ere.

Herri industrializatueta ohiko garapen-ereduen ildotik segituz gero, garbi dagoenez, ingurugiroaren narriadurak biosferako bizia bideratzen duten sistema ekologikoen hondamena ekarriko luke, eta horien menpe diharduten sistema ekonomikoek ere lur joko lukete. Ondorioz, herri guztiok, garatuak zein garatugabeak, etorkizunari begira garbitasuna, justizia eta iraunkortasuna bermatuko dizkigun ordeko garapen-ereduaren apustua egin behar dugu. Luzaroan irauteko moduko garapen-eredu horretan, ez da nahikoa izango planetaren egoeraz arduratzea, horrez gain gizateriaren biziraupena bermatu behar da ekintza amankomunaren bitartez; bestalde, epe luzeko helburuak zaindu behar dira batez ere, geroko belaunaldien eskubideak, baita gizarte-justizia eta ondasunen banaketa xedetzat izango dituen ekonomi sistemaren errazionaltasuna ere.

Zentzuzko garapen horren oinarriak ondokoak dira:

- v Belaunaldi berekoen berdintasuna (gizarte-justizia) bermatzen duen garapena.
- v Belaunaldiarteko berdintasuna (hurrengo belaunaldiek ere baliabideak erabili ahal izatea) bermatzen duen garapena.
- v Garapen ez-hondatzailea eta sortzailea, gizartearentzat eta ingurugiroarentzat egokiak diren teknologiak erabiltzen dituena.
- v Ekonomiaren aldetik bidera daitekeen garapena: hazkunde ekonomikoa mugagabea izanik ere badaude muga fisikoak.
- v Mundu osorako balio duen garapen-eredua: Munduko Ordena Berria, nazioarteko lankide- tzarako oinarri berriekin.

Argudio hori sendotu eta berretsi egin da Europar Batasunaren Itunbanean, horren 2. artikuluan adierazi baita Elkartearen helburu behinenetarikoa dela "*ekonomi jarduerak garapen orekatsu eta taxuzkoa edukitzea, hazkuntza inflazio-eragilea barik zentzuzkoa izatea eta horretan guztian ingurugiroaganako begirunez jokatzela*". Ingurugiroa babestu beharra eta ekonomiaren hazkuntza zentzuzkoa izan beharra uztartzeko oinarritzko bi gako ditugu: oraingo zerga sistema eraldatzea (kanpoko ingurugiro-kostuak gureganatzea) eta ingurugiroaren arloa lehiakortasunean sartzea.

Ikuspegi berri hori Elkartearen Ingurugiroari buruzko Bosgarren Egitarauan gauzatu da (1992-2000) eta berorren osagaiak ondokoak dira:

- v Ingurugiroaren arloko arazoak Elkartearen politikaren beste arlo batzuetan sartzea.
- v Tresneria zabaltzea, are ekonomi tresnak ere.
- v Lankidetzak (bai Europar Batasuna, bai jende guztia, oro har, bai enpresariak, bai herri administrazioak) eta erantzukizun hainbanatua.
- v Kontsumitu eta ekoizteko jarrerak eta jokaerak aldatzea.
- v Legeria ezartzea eta betearaztea.
- v Bosgarren Egitaraua nazioartera zabaltzea.

Egitarau horrek ondoko jarduketa-eremuak lehenetsi ditu:

- v Naturaren baliabideak zentzunez kudeatzea: lurra, ura, naturguneak eta kostaldea.
- v Kutsaduraren kontrol integratua eta hondakin bolumenaren murrizketa.
- v Energia berriztaezinak murriztea.
- v Garraioak eraginkortasun handiagoarekin kudeatzea, haiek kokatzeko tokiak eta garraio- bideak eurak ere eraginkorrak eta ekologiaren aldetik zentzuzkoak izan daitezten.
- v Hiriko ingurugiroaren kalitatea hobetzea ("zentzuzko hiria" kontzeptua sartzea).
- v Herritarren osasuna eta segurtasuna hobetzea, arreta berezia ematen zaiela industri arriskuen ebaluazioari eta haien kudeaketari.

Laburbilduz, herri boteredunek euren erabakiak hartzen dituztenean eta ekoizpen-prozesuak zuzentzen eta garatzen direnean, ekonomi politikak eta sektorei buruzko politikak formulatu eta ezarri nahi izanez gero, ingurugiroa kontutan hartu behar da.

Kapitalarentzat Natura eremu ezezaguna izan da. Gaur egun, esan daiteke kapitala aldi "ekologikoan" dagoela (garatuzat dauzkagun herrietan, jakina), izan ere merkatu-prezioen sistemaren bidez lehengaiak, energi baliabideak, ekoizpen sistemak eta gainerakoak barneratu baititu, ingurugiroari egiten zaizkion kalteei dagokienez, eta horrela Natura nolabait kodetu egin du. Holako planteamenduen arabera, lurralde-ondasunak dira ur garbiak, basoak, agorturik ez dauden lurrak, ekologi hondamendiak gertatzeko probabilitateak gutxitzen dituzten tresnak, ingurugiroari buruzko ikerketak, etab.

Funtsezko ideia hau da: oraingo belaunaldiak ingurugiroa hurrengoari utzi behar dio herritarren osasuna eta beraien gizartearen eta ekonomiaren ongizatea behar bezala mantentzeko egoera egokian.

Epe laburrean eta presaz ekoizkinak berauek ekoizteko erabiltzen diren lehengaien eta kontsumitzen den energiaren arabera kargatzen dituzten zergak ezartzen dituen zerga politika entsaiatu behar litzateke. Zerga sistema honek, berriz, balituzke kontrapartidak ere, alegia, lanaren, kapitalaren eta ezagutzaren gaineko zerga-zamak gutxitzea, helburua beti ere ingurugiroa babestea eta lanpostuak sortzea dela. Horrek ez dakar berekin, alabaina, atmosferara edo uretara isurtzen diren kutsagaien edo hondakinen gaineko kargak nazioarteko erakundeek ezar ezin ditzaketarik edo hori egin behar ez dutenik

Enpresen jarduera eta ingurugiroa.-

Zentzuzko garapenaren alderdi teknologiko hutsak hizpide harturik, konponbideak ikertuz eta teknologia eta energia era berriak garatuz lortuko ditugu.

Arazoaren larritasunak ez gaitu ezdeus sentiarazi behar bere aurrean. Energia iturri edo teknologia berrien bila ez dira ari herri "handiak" soilik. Lehenetasuna emango zaio teknologia eta energia iturri garbiez ikerketak egiten dituzten diziplinatzeko taldeak sortzeari.

Ezbairik gabe, Euzkadi oso merkatu erakargarria eta garrantzitsua da ingurugiroaz diharduen sektorean. Hori hala dela baieztatzeko, aski dugu ondoko faktore erabakiorrak aintzat hartzea:

{ Ingurugiroaren oinarrizko osagaien egoera: airea, lurra eta ura.

{ Ingurugiroaganako kontzientzia geroago eta errotuago dago jarduera-sektoreetan.

{ Kopuruz etengabe hazten ari den biztanleriak aisialdirako tokiak behar ditu.

{ Ingurugiroa birgaitu beharra, instalazio berriak jarriko badira edo jarduera berriak beste batzuetara eramán.

{ Lotarazleak direla-eta nahitaez bete beharreko arau-xedapenek, ingurugiroaganako kontzientzia piztu duten bitartekoek -esaterako, eco-labe araudiak edo eco-auditoretzak- eta merkatuaren halabeharreko alderdiek (kontsumitzaileak geroago zorrotzagoak dira gauzak eskatzean) bultzada handia eman dute arlo honetan.

Euzko Alderdi Jeltzaleak ingurugiroaren arloko ekintzetarako egitarauan ingurugiroaren oinarrizko osagaiak -lurra, airea, ura, landaredia eta fauna- artatzeko eta behar bezala kudeatzeko metodoak ikertzea, esperimintatzea eta zabaltzea planteatzen du, kontutan harturik Euzkadiko inguru fisikoak eta gizarte eta ekonomi baldintzek jartzen dituzten mugak. Ildo honetan, aipatu berri ditugun natur baliabideen nariaduraren prozesu guztiak hartzen dituzten ereduak garatu behar dira.

Gure gizartearen arazoak, ingurugiroarenak, hirietakoak eta industrietakoak konpontzeko darabiltzagun prozesuak ikerketako laborategi-saio gisa erabili behar ditugu, bai eta metodo berri eta irudikorra ere, egun ontzat jotzen ditugun adimen-eskemetarik asko aldatzen ditugula, baina galdu aginean dauden kultur esperientziak ahaztu gabe, eta ekologi ingeniariatza berriak garatuz.

Helburu nagusia mundu osoko biztanleek ingurugiroaren arazoei ekologiaganako begirunea duten konponbideak ematen dizkion herria legez ikus gaitzaten da. Aldi berean gai izan behar dugu beste herri batzuetan erabil daitezkeen birgaikuntza- teknologia eta prozesuak sortzeko.

Horrela, ingurugiroaren mantenimendutik eta birgaikuntzatik aurrera urratsa emango genuke. Ingurugiroaren arloan, nazioartean ezaguna den ekonomi sektorea sortzen ahalegindu behar dugu.

Euskal Herriko enpresen xedea kanpoan lehiakorra den industri sektorea sortzea izan behar da; horretarako ekoizkinak dibertsifikatu eta espezializatu behar dituzte eta ingurugiroagana begirune handia izan.

Gure lurraldeko industrien oraingo sarea zelakoa den ikusirik, ez dugu ahaztu behar industri birmoldaketak gizartean, ekonomian eta politikan kalte handiak eragin dituela eta oraindik ere hala diharduela eta, beraz, ingurugiro-birmoldaketaren fasea bera traumatikoa izan daitekeela Euzkadin gauzatzen denean.

Honetaz ari garela, esan dezagun ingurugiroaz gizartean dagoen sentsibilazazioa geroago sendoagoa dela eta hori gure industri sarea sortzeko edota birmoldatzeko eta modernizatzeko pizgarria dela;

horrek eragin handia eduki dezake maila guztietan gizarte-ekonomiazko gure inguruan, garapen maila handiagoa eta bizi-kalitate hobea lortzeko.

Erakundeen papera.-

Erakundeek aurreneurri-emale jokatu behar dute, batez ere, ingurugiroari buruzko politika orokorraren plangintza orokorra egituratzen dutela, eta aurrekoek eragindako kutsadura eta oraingo gizarteak eguneroko bizitzan sortzen duena ezabatzeak dakartzan gastuak bereganatu behar dituzte, ingurugiroaren arloko azpiegiturak garatu behar dituzte, ingurugiroaz indarrean dagoen legeria bete dadila gainikusi eta enpresek eurek eragiten dituzten gizarte kostuak eurengana ditzatela sustatu, "kutsatzen duenak, kutsagabetu" printzipio aplikaturik. Izan ere, apurka-apurka "kutsatzen duenak, ordaindu" printzipioaren ordezturaxe ezar dadila nahi genuke, lehengo haretan isilbidez kutsatzea badagoela onartzen baita, baldin eta kalteak dirutan ordaintzen badira.

Gure herrietako erakundeetatik beti gogoan izan behar dugu gure inguruaren bizi-kalitatearen berri, horretarako udalerrri edo hiriko ingurugiroaren egoeraz ebaluazioak egitean gizarte adierazkariak aintzat hartzen diren egitarauak prestatzen ditugula. Laster batean hiri eta gizarte ekologian geroago eta sarriagoa erabiliko dugu ahoan eta luman, baita langabeziak jota bizi direnen aldirietako auzoetako ekosistemak ere; azken finean, hizpide izango ditugu gizarte-harremanen eta inguru-harremanen artean dagoen elkarreragin handia, gizartearen parametroak eguneroko bizitzan naturar ingurura zabaltzea, eta ingurugiroaren eta biztanleen, gizarte antolamenduaren eta teknologiaren arteko lotura.

Europar Batasunaren Itunbenak beren beregi ezarri du *"ingurugiroa babestu beharra Elkartearen gainerako sektore-politiketan uztartu behar dela"*.

Ingurugiroari buruzko politika ezin sor daiteke, ez diseinatu, beste politiketatik aparte. Ingurugiroa beste sektore batzuetan eta gizartearen eta Administrazioaren jardun-arlo batzuetan osagai gisa integratzeari arreta berezia eman behar zaio aurrekontuak egitean eta estrategiak definitzean.

Horregatik guztiagatik, badirudi beharrezkoa dela ingurugiroari buruzko politikaren oinarria erantzukidetasuna edo erantzukizun hainbanatua izatea.

Erantzukidetasunak maila guztietakoa behar du; gizarte osoa hartu behar du, horixe baita ezinbesteko beharkizuna ingurugiroa planteamenduaren gunean eta politikaren funtzionamenduaren eskema orokorrean egon dadin.

Erantzukizun hainbanatuaren printzipioa erakundeetara zabaltzeko, euskal administrazio guztiek gogo biziz hartu behar dute esku eta erakunde horietariko bakoitzak bere barne antolamendua partaidetza horretarako egokia izan dadila lortu behar du.

Beraz, deserdirapena, partaidetza eta koordinazioa oinarritzko printzipioak izan behar dira, Administrazioak Euzkadiko ingurugiroari buruzko politika egituratuko badu. Horregatik bada, Euzko Alderdi Jeltzaleak apostua egin du arloetako sailen eskumenak argitzearen eta haiek koordinatzearen alde.

Inguruaren arloko eskumenak zentralizatuz gero, tentsio eta gaizki-ulertu ugari sortuko liriateke arlo horretako sailaren babes-jarduketan eta gainerako sektoreen ekoizpen-jarduketan artean, eta, aitzitik, helburua sektore bakoitzeko sailak ekoizpen-jarduketak ingurugiroari dagozkion arazoez erantzukizun

zuzena edukitzea da, gizartearen kultura berrian funtsezkoa delako ekonomiaren hazkundera eta ingurugiroa babestea elkarri lotzea.

Eta aurrekoa gorabehera, ingurugiroaren arloko politikak eta jarduketak koordinatu eta haietaz aholkuak ematen dituen administrazio erakundera sortu ahal izango da.

Esaterako, nekazaritzaren arloko politikak mendialdea orekaz antolatzea eraginkorragoa izan liteke ingurugiroaz beraz legegintzan edo administrazioan egiten diren beste jarduketa batzuk baino.

Horrenbestez, ingurugiroari buruzko plan orokor egokia egiteko, elkarbizitzaren arazoa behar bezala konpondu beharko da. Horretarako, ingurugiroa ikutzen duten sektoreen jarduketetarako plan eratu beharko da, izan ere arloa hain da zehatza, ezen beraren helburu bereziak lehenasuna behar baitu. Sorospidetasunaren arabera, sektorean bertan erabil daitezkeen funtzio-eskumenak behar den erakundeari iratxikiko zaizkio.

Horrez gainera, Euzko Alderdi Jeltzaleak badaki ingurugiroaz egiten dihardugun eztabaidan gizarte-agente guztiek parte hartzeko udalek garrantzi handia dutena, jendearen ordezkari zuzenak direnez eta ingurugiro zerbitzuak egiten dituztenez. Horregatik, administratuak eta gobernu-organoak elkarrengandik oso hurbil daudela gogoan harturik, udal administrazioa uste dugu dela gunerik egokiena Euzkadiko hiritarrek eurei zuzen dagozkien arazoak kudeatzen esku har dezaten; ingurugiroaren arlokoak horierakoak ditugu, ezbaierik gabe.

Ez dugu ahaztu behar, era berean, partzuergo, mankomunitate, kuadrila eta antzeko elkarteak bitarteko egokiak direla ingurugiroaren arazoak konpontzeko ahaleginak zentzuz bideratzeko.

Bestalde, Euzkadiko Ingurugiroari buruzko Oinarrizko Legea aldarrikatu behar da, bertatik erator daitezkeen, haren garapenean, Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuei buruzko Araudi berria, Estatuko araudi zaharkitua ordeztzeko eta arloan udalek behar duten garrantzi handia berresteko, Hondakinei buruzko Legea, Jarduera Kaltegarriak Industri Lurzoruan Kokatzeari buruzko Arauak, Zaratari buruzko Legea, lehen aipatu dugun erakundearen antolaketaren eraketa eta funtzionamendua araupetzen duen legea, Lurzoru Kutsatuei buruzko Legea, eta beste batzuk.

INGURUGIROARI BURUZKO EAJren POLITIKA GAUZATZEKO EGIN BEHAR DIREN JARDUKETAK

{ Ekosistemetako osagai bakoitzaren (ura, airea, lurra, landaredia, etab.) ingurugiro-maila zehatza definitu, bai eta gizarte-agente bakoitzak osagai horietariko bakoitzarekiko jokatu behar duen papera ere.

{ Lurraldeari buruzko beste plan bat burutu, ingurugiroaz agertu diren eskakizunak biltzen eta aztertzen dituen, helburua natura eta ekonomia era egokian eta orekatsuan bateratzen dituen konponbidea aurkitzea dela. Plan horretan sektore-politika guztiak sartu beharko dira (industria, hirigintza, zerbitzuak eta ekipamenduak, etab.).

{ Ingurugiroa artatzeko politika sendoa ezarri, gaur egun gure natur eta kultur ondarearen osagai diren balore ekologikoak mantenduko direla eta etorkizunean iraungo dutela ziurtatzen duena. Horretarako, narriaturik dauden ekosistemak lehengoratzeko eta euren berezko orekara itzultzeko ahaleginak egingo dira eta ekosistemarik garrantzitsuenak babestuko dira, gure herriaren adierazgarri diren aldetik eta guren ondokoek egungo paisaia bera eduki ezaten.

{ Energiaren arloko politika eraginkorra eta ingurugiroagana begirune duena garatu, geure baliabideez behar bezala baliatzeko. Ildo honetan, esan behar dugu energia berriztagarriek (eguzki-indarra, haizearena, hiri eta industri hondakinak, etab.) aukera handiak eskaintzen dituztela eta, aldi berean, gure elektrizitate-ekoizpena sortu behar dugula eta energia hornitzeko azpiegiturak hobetu behar ditugula.

{ Zerga-pizgarrien sistema eratu, ingurugiroa hobetzea dakarten jarduketetarako.

{ Ingurugiroaren arloko legezko arau-sistema zorrotz ezarri; legezko xedapenen bitartez jendeak bere joerak aldatu eta aurreneurriak premiazkoa direlako kontzientzia hartzea lortzea litzateke helburua.

{ Gizartea osasuntsua izatea eta beraren inguruagana begirunea edukitzea lortu ingurugiroari buruzko hezkuntzaren bidez, hirietako biztanleei natur inguruaren errealitatea euren eremura hurbilduz.

{ Euzkadiko hiri eta industriguneetako zarata eta kutsadura murrizteko neurriak ezarri; bidea hiri garraio alternatiboak, gizarte ekipamenduak eta zarata eta kutsadura arintzen duten azpiegiturak eskaintzea litzateke.

{ Ur lasterrak eta ur geldiak lehengoratu. Ondo artaturik dauden urtzak eta ur lasterrak babestu.

{ Urari egiten zaizkion kalteak ahalik gehien gutxituko duen politika hidraulikoa ezarri, bai eta ur-baliabideak zentzunez aprobetxatzeko egitaraua ere.

{ Lurpeko urak babestu, kutsa ez daitezen eta mailak behar ez dela alda ez daitezen.

{ Herritarren osasuna eta segurtasuna hobetzeko neurriak hartu; horretarako industri arriskuak kudeatu eta ebaluatuko dira.

{ Hondakinak gutxitzea sustatu eta haiek berrerabili. Azkenean baztertzen diren hondakinak birziklapenaren bidez edo energia sortzeko berrerabili. Hondakindegia ezabatu eta paisaia lehengoratu.

{ Biztanleak landaguneetara bizi izaten joan daitezen bultzatzen duten Nekazaritzako Politika eta Landa Garapenerako Politika sustatu, horixe delako modua lurraldea antolatu eta natur ingurua artatzeko, landaguneen gizarte-ekonomiazko hazkundearen eta inguruaren artapenaren arteko oreka mantenduz.

{ Erkidegoek, agenteek eta udal erakundeek ingurugiroaren artapenean parte hartzea bultzatu, berori baita biderik egokiena haiek ingurugiroa dela-eta dituzten interesak eta kezak zein diren adieraz dezaten.

{ Meatze-aprobetxamenduak plan egokien bidez eta bi alderdien azterlanen arabera burutarazi, aprobetxamendua burututakoan meatzaldeak lehengoratzea egon dadin.

{ Europar Batasunean Batasunaren barruko herriekiko lehentasuna gogoz defendatu, gainontzeko herriek, ingurugiroaren arloko eskakizun txikiagoak edukirik, kostu txikiagoekin lehiatu eta gure merkatuak eurengana ez ditzaten.

{ Europar Batasunean ingurugiroaren arloko konbergentzia sustatu; estatu eta erregioen laguntza sendotuko da eta geure burua Batasunaren arautegi zorrotzera orain arte baino gehiago moldatu beharko dugu.

{ Hirugarren Munduari ematen dizkiogun laguntzak areagotu, nazioarteko elkartasunarekin bat egiteko, bai baitakigu munduko ingurugiroaren arazoan eragilea ekonomi garapenaren orekarik eza dela.